

Iker Garate: “Sagardoa hobia edo okerragoa den ateratzean ere antzematen da”

by **Urola Kostako Hitza** on 2014/07/24 in **JAIK**



Iker Garate Azpeitiko sagardo txapelketan sagardoa ateratzen jarduten da (Nerea Uranga/Hitza).

Seguru ez daki, baina 13-14 urte ingururekin hasi zen Azpeitiko Sagardo Txapelketaren munduan Iker Garate (Azpeitia, 1973). Alex Garmendiarekin batera jarduten du epaimahaikoei lehiaketan parte hartzen duten sagardoak zerbitzen. Gipuzkoako zaharrena da Azpeitiko sagardo txapelketa, eta biharkoa 42. aldia da. 23 sagardogilek hartuko dute parte bertan.

Nola hasi zinen Azpeitiko Sagardo Txapelketan sagardoa ateratzeko lanean?

Garai batean Berdura Plazan egiten zen sagardo txapelketa, eta orduan Tolosako batzuk

ibiltzen ziren sagardoa ateratzen. Haiek gustura etortzen ziren, baina Sebastian Lizasok beti animatzen gintuen gu hastera. Baina, gure aitak eta guk gazteegiak ginela esaten genion. Azkenean, ordea, probatu egin behar genuela, eta pare bat urtean jendeari sagardoa ateratzen behean ibili ginen. Gero, Loiolatxo elkartera joaten ginen bazkaltzera, eta han ere sagardoa zerbitzatzen geu ibiltzen ginen. Orain dela 26 urte inguru hasi ginen.

Sagardoa nola atera, alderik ba al dago?

Nire ustez bai. Askotan sagardoari ateratzerakoan antzeman egiten zaio hobia edo okerragoa den.

Eta, zer ikusten zaio, bada?

Desberdin irtetzen du botilatik: batzuk olio bezala irtetzen dute, eta beste batzuk, puskatuta. Agian urteen poderioz ikasi du-gu, baina igartzen zaio.

Beti jendaurrean, oholza gainean, aritzen zarete txapelketan.

Horretara ere jarri egiten da bat. Ateratzea ez da zaila, guri tolosarrek botilari edo edalontziari begira ez egoteko esaten ziguten: 'Erraza daukazue, zuek botila hartu, aurrera begira egon eta bi begien erditik bota. Horrelaxe jardun behar dik!'. Azkenean, edalontzia eskuan daukazula sentitu egiten duzu nora ari zaren botatzen. Kanpora ere joaten da sagardo pixka bat, baina baita barrura ere.

Nekagarria al da?

Beno, azkeneko egin egiten da. Eskua goian edukitzen da, eta lehendabiziko botila erraz joaten da, baina bukaerarako pultsua ez da gauza bera. Hasieran 23 sagardo dira, eta gero beste hamar edo pasatzen dira; azkeneko nekatu ez, baina botila mordoxa da, eta pultsua galdu daiteke.

Orain sagardoa ateratzeko kortxo edo tresna bereziak egiten hasi dira.

Bai, baina sagardogileek ez dute horrelakorik erabiltzerik nahi. Asko ez, baina sagardoaren gustua aldatu egin daiteke. Sagardozaleek eta enologoek hori diote. Sagardoaren mundua oso konplexua da; ez du ematen, baina hala da.

Sagardoa ateratzeko erreleborik ikusten al duzue?

Ez da askorik ikusten. Sebaxtiani [Lizaso] esan nion, gu goraka goazela, baina kasurik ez digute egin nahi. Behean, sagardoa banatzeko ere jende asko behar da, eta gazteei eskatzen diegu parte hartzeko. Denok boluntarioki jarduten dugu, bazkariaren truke. Baina egun eder bat da. Ordea, orain gazteek aurreko egunean ere parranda egiten dute, eta ez dira animatzen parte hartzera. Iaz, sagardoa ateratzen jarduteko hamar gaztek aurretik baiezkota eman zuten, eta egunean bertan bi bakarrik azaldu ziren.

Epaimahairako ere beharko da erreleboa, ala?

Nik aita [Javier Garate] ibiltzen nuen hor, urteetan ibili zen utzi egin behar zuela esanez, baina jenderik ez zuten topatzen eta beste hainbat urtez segitu behar izan zuen. Azpeitiko sagardo txapelketako epaimahaian ere aldaketa batzuk egin nahi ditugu: emakumeek parte hartzea da nahi duguna, baina ezin ditugu bilatu.

Zeu animatuko al zinateke epaimahaian egotera?

Epaimahaikide baino, nahiago behean, arkupeetan, sagardoa ateratzen aritzea.

Txapelketa ari den bitartean sagardorik dastatzen al duzue?

Bai, bai. Sagardoa atera eta ederra ematen duela ikusiz gero dastatzen dut. Igoal deskuidatuta egoten naiz, ordea. Sagardo txarra normalean berehala antzematen da.

Nolako sagardoa duzu gustuko?

Bizi-bizi hori ez zait gustatzen. Sagardoa orain dela urte batzuetatik hona aldatzen ari da: nire ustez, gaur egun sagardo bigunagoak egiten dira, errazago edatekoak edo. Asturiasen ere ibilita nago, eta haiek gure aurretik doaz kontu horretan. Han sagardoa hemen aldean asko edaten da. Ardoa ez dut gustuko, sagardoa gustatzen zait, eta sagardotegi asko, gehienak, pasatuko ditut. Autobus gidaria naiz, eta askotan sagardotegira jendea ematea ere egokitzen zait, baina orduan ezin izaten dut edan. Sagardoaren mundua gustukoa dut, eta gustura ibiltzen naiz.

Azpeitiko sagardo txapelketak zer du berezi zuretzat?

Gipuzkoako sagardo txapelketa zaharrena da, eta bere lilura badauka. 23 sagardozale datoz, baina Gipuzkoan gehiago daude, eta denek hona etorri nahi izaten dute, Azpeitikoari garrantzia ematen diotelako. Azpeitian parte hartu nahi dutenak erreserban daude, plazako arkupeetan ez dagoelako horientzako tokirik. Gaur egun etortzen den bateren batek baja emango balu, itxaron zerrendako aurrena etorriko litzateke haren tokian. Sagardo txapelketarekin batera, gazta eta txahal eta hegaluze errea ere egoten da, eta egun polita izaten da. Garai batean, sagardozale bakoitzak launa sagardo kaxa ekartzen zituen, eta orain hamaikana ekartzen dituzte; bada zerbait.

◆ **Azpeitiko sagardo txapelketa, Iker Garate, sagardoa, Santio Eguna**

◀ Erraustea, "amesgaiztoa"

IRITZIA: 'Atxoputie' ▶





Bilatu zure inguruko ostatua

Ostatua...

Bilatu



República Monegría garagardoak

34,20 €

Eskaintza ikusi

LABURRAK

Azpeitiko 'Faktoria' proiektua diruz laguntzeko lau egun

Marea Arroxako herri bazkarirako txartelak larunbatean salgai

Zarauzko Vista Alegreko futbito txapelketa, asteburuan

Martinbertso ipuin kontari ariko da gaur Zarautzen

Rosas-Girona-Costa Brava ibilaldia antolatu dute Baigerakoek irailerako

BIDEOAK



Diego Garciari buruzko liburuaren aurkezpena

3:31



Keixeta, Artea Merkatuan

2:44



Gran Camping Zarautz- ek 50 urte

2:21

Tweets

Follow

**Urola Kostako Hitza**

@ukHitza

2h

Bihar, etzi eta igandean Azpeitian festa da urolakosta.hitza.info/2014/07/24/bih...

**Urola Kostako Hitza**

@ukHitza

2h

Bi artisau azoka bihartik Zarautzen urolakosta.hitza.info/2014/07/24/bi-...

**Urola Kostako Hitza**

@ukHitza

2h

Azpeitiko sagardo txapelketan sagardoa ateratzen jarduten du Iker Garatek.
urolakosta.hitza.info/2014/07/24/ike...
pic.twitter.com/XxmuHQhEzO



Expand

Tweet to @ukHitza

harpidedunen
TXOKOA

GEHIGARRIAK



GOIERRIKO hitza ASTAZKENA, 2014ko uztaieraren 24
Testuak: Aimar Maiz, Eneritz Maiz, Onintza Lete, Eskeine Legorburu

» EHM
Luzeera:
»168 km
Desnibela:
»11.000 m
Irteera:
»18:00

» G2H
Luzeera:
»88 km
Desnibela:
»6.000 m
Irteera:
»23:00

www.ehunmilak.com

Goranzko bidean

FOTO ALZURI



 **Otaizabal Aroztegia, S.L.**

Salbatore Auzoa. Izarraitz Industrigunea.
Tel./Faxa: 943 160 684
Sakelakoa: 639 645 253/605 757 623
otaizabal@telefonica.net
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

natx 
Dietetika-Belardenda

Medikuntza orokorra, Txinako medikuntza tradizionala,
Kirol masajea, Masaje terapeutikoa,
Dietista-nutrizionista, Elikagaien bateraezintasuna,
Entrenatzaile pertsonala.

Kale Nagusia, 15 BEASAIN tel.: 943 08 91 15



ARRAUN LIBURUXKA 2014





BILATU

Bilatu...



HERRIAK

Aia | Aizarnazabal | Azkoitia | Azpeitia | Beizama | Errezil | Getaria | Orio | Zarautz | Zestoa | Zumaia |

ZORION AGURRAK

Inhar (Zarautz)

Zorionak Inhar (Zarautz). Bihar hamar kandela itzaliko dituzu, a ze pilla! Muxu handi bat!

[irakurri gehiago »](#)

Nahia (Azpeitia)

ZORIONAK! Nahia (Azpeitia) Zorionak, Nahia! Sei muxu potolo, etxeko guztien partetik.

[irakurri gehiago »](#)



Oinatz (Zarautz)

Zorionak! Oinatz (Zarautz). Sei muxu potolo familia guztiaren partetik, biharko partez.

[irakurri gehiago »](#)

Guztiak irakurri

ESKELAK

JESUS ERRAZKIN ARTETXE (AZPEITIA) I. urteurrena

Iñaki Etxabe Uranga 'Kittarra' (Azkoitia)

Guztiak irakurri

23°C

Hoy

23°C 13°C

Mañana

22°C 18°C

Sábado

24°C 16°C

© Tutiempo.net

Más »

POPULARRAK

EKARPENAK

- Bi autok istripua izan dute Orio parean, autobidean
2014/07/21

- IRUDIETAN: Azpeitiko baltsen jaitsiera
2014/07/19

- Berritasunekin dator aurtengo Azpeitiko Errekortari Txapelketa
2014/07/19

BERRIKETAN.INFO [RSS]

Unai Oiartzun

posted an update

1 day, 23 hours ago

IGERIKETA: Txapela eta errekorra lortu ditu Mendiak Getaria-Zarautzen
<http://kiroletikblog.blogspot.com.es/>

Amaia Larruzea

posted an update

2 days, 17 hours ago

POST KONPLETOA!!

EHUNMILAK EZAGUTUZ: TESTUA+BIDEOA+ARGAZKIAK

Ikusi eta gozatuu 😊

Hemen gaude berriz, Ehunmilak/G2h ultratraila aztertzen, orain bai, pasa ondoren. Sentitzen dut...

Amaia Larruzea

posted an update

3 days, 1 hour ago

EXTRA, EXTRA!!! BEASAINDIK... MENDIALDIAK!

EHUNMILAKG2H ULTRATRAILEKO BIDEOA!

Zuen gustukoa izatea espero dot!!)

Wird geladen...

KIROLA

- Zarauzko Vista Alegreko futbito txapelketa, asteburuan
- Azpeitian jokatu da Euskal Herriko Bakarkako VI. Segi Ligaxkako finala
- Maialen Mujika: "Bera Berako jokalaria izatea urrats handia da"
- Bideoa: Diego Garcíari buruzko liburuaren aurkezpena

KULTURA

- Martinbertso ipuin kontari ariko da gaur Zarautzen
- Zarauzko Trikitilari Gazteen Txapelketarako izena eman daiteke
- Bi artisautza azoka zabalduko dituzte bihar Zarauzko Alde Zaharrean
- Bihar banatuko dituzte Zumaiako argazki lehiaketako sariak

AISIA

- Abuztuak 21ean egingo du Hondarrezko Gaztelua taldeak hurrengo tailerra Zarautzen
- Lovis G. & AR taldearen kontzertua egongo da ostiralean
- Rosas-Girona-Costa Brava ibilaldia antolatu dute Baigerakoek irailerako
- Bihartik saninazioetako umeen egunean egingo den afarirako izena eman ahal izango da

GIZARTEA

- Zarauzko alkateari udaleko web orrietan '.eus' domeinua jartzeko eskatu dio EAJk
- Graffiti tailerra emango du Haritz Iruretak Zarautzen, larunbatean
- Azkoitian gazte lokalen gutxienekoak adosten hasi dira
- Amaia Azkueren hiltzaileak Zumarragako zentroan jarraituko du zigorra betetzen

EKONOMIA

- Formazio ikastaro bat egin eta lan mundura jauzi egin dute 15 azpeitiarrek
- Kutxabanken kudeaketa pribatuaren kontra egin dute Azpeitian
- Urola Erdiko gazteek Global Training beka eska dezakete hilaren 28ra bitartean
- 50 urte bete ditu gaur Zarauzko goiko kanpinak

POLITIKA

- GUTUNA: Zarauzko Bilduren gezurrak
- Marea Arroxa "aldarrikapen politikoetarako" ez erabiltzeko eskatu du Azpeitiko EAJk
- Soreasu: hutsuneak, betetzeko
- Dozenaka herritarren babesa jaso du Lizeagak

© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Faxe 943 134 122 - E-posta:
urolakosta@hitza.info Perez Arregi plaza 1 behe, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150
358



Gipuzkoako Foru Aldundia



Webgune honek bat egiten du Creative Commons erabilera lizentziarekin.